



Martxoan zehar, eskualdeko hainbat ikasle izan dira bisitari Azaro Fundazioan: Txomin Agirre ikastola, Zubi Zahar ikastola, Bera Kruz ikastola, Iturrioz-Lekeitio Institutoa eta Resurrección M^a de Azkue Ikastolako DBHkoak. Gazteen ekintzailetasuna lantzeko asmoz, urtean zehar irakaskuntza zentrook egiten dituzten ekintzen barruan kokatzen dira bisita hauek.

Gaitasunak lantzeko tailer ezberdinak izan dituzte ikasleek, besteak beste, sormena, arazoan aurrean konponbidea, nor bere buruarengan konfiantza, talde lana eta erabakiak hartzea. Honez gain, Kalatxo liburuxkaren bidez, Lea-Artibaiko hirugarren sektoreari buruzko oinarrizko informazioa landu eta sektore honetako enpresak sortu dituzten ekintzaileen hitzaldiak ere izan dituzte. Ondoren, landutako guztia kontutan hartuta, negozio ideia bat garatu beharko dute ikasleek bakoitzak bere herrian ikusitako gabezia edo beharriaz erantzunez.

Azaro Fundazioa 2005.urtean hasi zen Lea-Artibai eskualdeko ikastetxeekin elkarlanean, gazteen artean ekintzailerak sustatu, eskualdeko enpresa-ehuna ezagutzera eman eta bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak landu eta garatzeko helburuarekin.